

AITA IZENA KANTA BEHARRA (Xabier Amuriza)

Aita izena kanta beharrak
jarri dit bihotza bero
aukera eder hau izango zenik
ez nuen hemen espero
preso nengoen Zamoran eta
han gelditu ia ero
joan nintzen ta bertan nengola
aita hil zitzaidan gero
nahiago nuke edozer baino
hemen bizirik balego

Aita nuen nik umoretsua
inoiz geza ta gazia
harek agertu zidan bidea
baitzen bertsoz ikasia
oi ene aita nire lagunak
ere aurrera doaz ia
baina zugandik hartua baitut
bertsotarako grazia
nik egingo duk arbola handi
zuk emandako hazia

Gai hau kolpera jarriko zenik
ia ametsa dirudi
baserri hartan izan genuen
hainbat harri eta euri
zu aita zinen hain on niretzat
ez gogorra baizik guri
Euskal Herria nola dagoen
orain Donostin ageri
niri jotako txalo guztiak
bidaltzen dizkizut zuri